



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA



Gradu Amaierako Lanaren Gida (GAL)

Haur Hezkuntzako Gradua
Lehen Hezkuntzako Gradua
Gizarte Hezkuntzako Gradua

2014/2015 ikasturtea

(Eskola Batzordean onartua 2014ko martxoaren 24an)

AURKIBIDE OROKORRA

SARRERA	2
1. Zer da Gradu Amaierako Lana?	2
2. Noiz egin daiteke GALA?	4
3. Zeintzuk dira GALAren prestakuntza jarduerak?.....	4
4. Zer ezaugarri ditu oroitidazkiak?	5
5. Zein formatu eta luzera izan behar du GALAk?	6
6. Zertan datza ahozko defentsa?.....	7
7. Nola ebaluatuko da GALA?.....	8
8. Arau etikoa eta jabetza intelektuala.	9
9. Zer baldintza administratibo bete behar dira?.....	9
1. Eranskina.GALAren azalaren eredia.	13
2. Eranskina. Zuzendariaren txostena.....	14
3. Eranskina. Ebaluaziorako akta eredia	15
4. Eranskina. Zuzendarietzako ebaluazio irizpideak	16
5. Eranskina. Epaimahaikideentzako ebaluazio irizpideak.....	17
6. Eranskina, Gradu Amaierako Lan moten adibideak	18

SARRERA

Gradu Amaierako Lana Graduko azken mailako irakasgai bat da, 12 ECTS kreditukoa. Ikasketa Planeko gainontzeko irakasgaietatik bestelakoa da; izan ere ikasleak berak egin beharko du, banaka, eta lan orijinala izango da. GALa garatzeko, ikasleak zuzendari baten laguntza izango du, bideratzaile gisa arituko dena, kontzeptu, metodologia eta analisiaren inguruko irizpideak eta baliabideak emanaz. GALa ez da inolaz ere baliozkotuko.

Dokumentu honek GALa definitu, egin, gainbegiratu, defendatu, ebaluatu, kalifikatu eta tramitatzeko irizpideak jasotzen ditu, indarrean diren UPV/EHUko gainerako arautegietan zehaztutakoaren arabera.

1. Zer da Gradu Amaierako Lana?

GALa ikasle bakoitzak, banaka, gizarte eta heziketa arloko proposamen berritzaile bat edo izaera kontzeptual edo enpirikoko lan bat egitean datza zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean (Ikus GAL_UPV-EHU Arautegia, 2. art.). Lan honek prestakuntza prozesuan ikasi dituen gaitasunak bildu eta garatzen ditu, norberaren interesak, ikasitako guztia eta bizitako esperientziak baliatuta.

GALa aukeratutako gaiari buruzko lan sakon bat egitean datza edo diziplina arteko proposamen berritzaile bat egin eta hura lan arloan ezartzeko estrategiak diseinatzean. Nolanahi ere, ikasleak helburu hauek bete beharko ditu: a) Graduko eremu jakin batean sakontzeko gai garrantzitsuak eta interesekoak identifikatu; b) planteatzen dituen galderei erantzuteko zer motatako GALa egingo duen erabaki; c) informazioa bildu, aztertu eta modu kritikoan interpretatu; d) oroitidazkia zorrotasun akademikoaz egin; eta e) lana ahoz defendatu. (Ikusi adibideak 6. Eranskinean).

GALAn graduaren prestakuntzan landutako arlo bat edo batzuk aipatu ahal izango dira eta edukiak titulazioari lotutako gaitasun orokorrak aplikatzeari begira zehaztuko dira: datu garrantzitsuak bilatu, kudeatu, antolatu eta interpretatu; gizarteari, zientziari, teknologiarri edo etikari loturiko gai nabarmenei

buruzko gogoeta egin eta iritzia kritikoak, logikoak eta sortzaileak eman. Halaber, ikasleak GALArekin lotutako gaitasun zehatz hauek adierazi beharko ditu:

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUAK LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUAK	GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA
<p>1. Lortutako ezagutza teorikoak eta praktikoak erabili, teoria eta praktika egungo hezkuntza errealitatearekin lotu eta ezagutza berriak sortu irakaskuntzarekin eta ikaskuntzarekin lotutako arazoei aurre egiteko.</p> <p>2. Informazio garrantzitsua aukeratu, aztertu eta sintetizatu, eskolatze prozesuak hobetuko dituzten proiektuak diseinatze aldera.</p> <p>3. Autonomia adierazi heziketa arloko gogoeta, argudio, iritzi akademiko eta profesionaletan, baita erabakiak hartu eta arazoak konpontzerakoan, banaka zein talde barruan.</p> <p>4. Komunikazio gaitasuna adierazi, ahoz zein idatziz, EAEko bi hizkuntza ofizialetan.</p>	<p>1. Gizartearen eta hezkuntzaren errealitatea aztertu eta interpretatu, eta era berean banakoen, erakundeen eta lanbidearen bestelako arloen beharrak identifikatu, gizarte eta hezkuntza mailako ekintzak oinarritzeko.</p> <p>2. Jarduteko proiektu berritzaileak diseinatu hainbat esparrutan eta Gizarte Hezkuntzaren arloko gai garrantzitsuetan aplikatu, koordinatu, balioetsi eta sakontzeko erabili.</p> <p>3. Norberak bere GALaren inguruan hausnartu, argudiatu eta defendatu.</p> <p>4. Ikuspegi, metodologia eta ikerkuntza, ekintza eta hobekuntza teknika desberdinak erabili Gizarte Hezkuntzaren esparruetan.</p>

Lau GALA mota aurkeztu litezke: ikerketa, berrikuntza, esku-hartzea edo jarduera ekintzaileak.

GALAREN gaia hautatzeko, ikasle bakoitzak ondoko aukeren artean egin behar du hautaketa:

- 1) GAUR bidez gai bat proposatu ezarritako epean eta eran (Jarraibideak eta egutegia ikusi). Proposamena behar bezala arrazoitu beharko da teoria eta praktikaren ikuspegitik eta egokia izango da titulazioaren eremu zientifikorako. Eskolako Batzordeak, edo hala badagokio, eginkizun horretan ordezkatzen duen Batzordeak, proposamena onartuko du ala ez, eta baiezeko kasuan egokitzen jotzen duen sailera bideratuko du, eta horrek izendatuko du GALA gidatuko duen zuzendaria. (Ikus GALA araudia, 4.7. artikulua).
- 2) Urteko katalogoan Eskolak proposatutako gaietako bat aukeratu, Graduan inplikaturik dauden departamentuen eskaintzaren arabera.

Eskolako Batzordeak, edo hala badagokio, ordezkatzen duen Batzordeak onartuko ditu ikasle bakoitzari behin betiko esleitu zaion gaia eta GALEko zuzendaria

2. Noiz egin daiteke GALA?

GALA Graduko laugarren mailako irakasgai bat da.

Ikasle bati GALA prestatzeko gai bat eta zuzendari bat esleitu ahal izateko, Graduko 168 kreditu gairatuta eduki behar ditu gutxienez. Gainera, ikasleak matrikulatuta egon beharko du ikasketa plana amaitzeko eskatzen diren gai guztietan, GALAN izan ezik.

Gai eta zuzendarien esleipen sistema egoki antolatzeko eta artikulatzeko xedez, GALA egin aurreko ikasturtearen bigarren seihilekoan ikasleek gaiak proposatzeko epealdia irekiko da. Ondoren, sailek landutako gaien eskaintza jarriko da jendaurrean. Eskaintza horretan aukera dezakete beren proposamenik egin ez duten ikasleek, edo aurkeztuta ere, ez bada onartu.

Dena den, ikasleak ezin izango du GALA matrikulatu, ezta haren defentsa egin ere, ikasketa planaren gainerako gai guztiak gairatuta arte.

3. Zeintzuk dira GALAren prestakuntza jarduerak?

GALa garatzeko ikasleek prestakuntza prozesu autonomoa egin beharko dute, eta horretarako prestakuntza jarduera presentzial eta ez presentzial hauek egin beharko dituzte (12 ECTS – 300 ordu):

- Zuzendariarekin tutoretzak egin, GALa diseinatzeko, garatzeko eta defendatzeko.
- GALaren diseinu eta metodologian laguntzeko mintegietan parte hartu.
- GALen emaitzak denen artean eztabaidatzeko mintegietan parte hartu.
- Lana diseinatu, kontzeptu esparrua landu, datuak biltzeko tresnak aukeratu, informazioa aztertu eta emaitzak interpretatu.
- Lanaren amaierako oroitidazkia egin eta norberaren lanaren inguruko balorazioa.
- Ahozko defentsa prestatu eta egin.

Zuzendariarekin lau bilera egingo dituzte gutxienez. Lehenengoan, ikasleak aukeratutako gaia zein ikuspuntutatik jorratuko duen eta nola diseinatuko duen eztabaidatu eta erabakiko dute. Bigarrenean, lanaren arlo metodologikoaz arituko dira. Hirugarrenean, metodologia zehaztuko da eta emaitzen azterketa eta ondorioz hitz egingo dute. Eta laugarrenean, oroitidazkia eta ahozko defentsa bideratuko dira.

4. Zer ezaugarri ditu oroitidazkiak?

Oroitidazkiak egindako prozesua argi eta garbi eta era antolatuan adierazi behar du (Ikus GALA txantiloia). Lanak gutxienez honako oinarritzko elementu hauek edukitzea gomendatzen da:

1. Azala
2. Aurkibide orokorra
3. Abstrata
4. Sarrera
5. Esparru teoriko eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera
6. Metodologia

7. Lanaren garapena
 8. Emaitzak eta ondorioak
 9. Erreferentzia bibliografikoak
- Eranskinak

GALA ikaslea matrikulatuko den hizkuntza berean egingo da. Nolanahi ere, lanaren laburpen gisa, Abstract bat ere egingo da gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez edo frantsesez (gehienez ere 100 hitz), eta bertan, lana indexatze aldera, gehienez ere bost deskribatzaile adieraziko dira. Termino horiek hezkuntzan espezializatutako thesaurus batetik hartuko dira.

5. Zein formatu eta luzera izan behar du GALak?

GALA oroitidazkiaren kopia digitala, pdf formatoan, ADDI artxibo digitalean jarriko da, ikasturte bakoitzean ezarritako modu eta epearen barruan. Hala ere, lana beste bide ofizialen bidez entregatzea eskatu ahal izango da. Formatu alderdi hauek kontuan hartu:

- Gutxi gorabeherako luzera: 20-25 orrialde artean (60.000 karaktere baino gutxiago, hutsuneak zenbatu gabe).
- Marjinak: goikoak eta behekoak 2,5 cm eta alboetakoek 3 cm.
- Letra mota: Times New Roman, Arial edo Calibri, 12 tamainakoa.
- Lerroartea: 1,5 puntu, paragrafo justifikatuekin.
- 2. Eranskinean adierazitako azalaren eredia kontuan hartuko da.
- Aurkibide orokorra bi marjinen erdian lerrotatuko da, testu nagusiaren aurretik eta azalaren ondoren. Tituluak eta azpitituluak ezkerrean jarriko dira eta titulu bakoitzari dagokion orrialdearen zenbakia eskuinean, puntuen bidez bereizita.
- Orrialde zenbakia: goian eta eskuinetara, testu nagusiaren bigarren orrialdetik aurrera.
- Testuaren barruko aipuak: lau lerrokoa baino gutxiagokoa bada, testuaren barruan joango da, kakotx artean. Lau lerrotik gorakoa bada, lerroarte bakunaz, testu jarraituaz kanpoko beste paragrafo batean, eta tartean lau

hutsuneko koska utziz. Ez da kaxotxik jarriko eta letra tamaina 11 izan beharko du.

- Oin oharak: orri oinean jarriko dira, zenbaki txikienetik handienera ordenatuta, dokumentu osoaren letra mota berarekin (10 tamaina), 1,0 puntuko lerroartearekin eta justifikatuta.
- Tituluak eta azpitoluak, zenbaki txikienetik handienera ordenatuta eta letra lodiz. Izenburu guztien aurretik hiru tarte utziko dira. Izenburuaren ondoren dagokion testu jarraitua idatzi aurretik hiru lerro bakun utziko dira.
- Orriaren tamaina: DIN A4.
- Taulak, grafikoak edo irudiak: zenbaki txikienetik handienera ordenatuta eta dagokion epigrafearekin.
- Bibliografia: aipuak eta erreferentziak APA arauen arabera egingo dira (6. ed. 2009).

6. Zertan datza ahozko defentsak?

GALa ahoz defendatuko da, jendaurrean eta ikastegiko hiru irakaslek osatutako epaimahai baten aurrean. Irakasle kategoria eta antzintasun handiena duen hiru irakasle horien artekoa izango da epaimahaiburu eta kategoria eta antzintasun txikiena duena idazkaria.

GAL baten zuzendariak ezingo du parte hartu bere ikaslearen lana ebaluatzeaz arduratuko den epaimahaian.

Lanaren defentsak bi zati izango ditu: lehenengoan, lanean jorratutako alderdi guztiak aurkeztuko ditu ahoz eta gehienez ere 15 minutuz; bigarrean, epaimahaikideen galderei erantzun beharko die, eta horretarako 10 minutu izango ditu gehienez ere. Dena dela, lana defendatzeko bestelako formatu berritzaileagoak ere proposatu ahal izango dira.

Ikasle bakoitzak matrikulatuta dagoen hizkuntzan egingo du lanaren defentsak. Edonola ere, GALa Autonomia Erkidegoko bi hizkuntzetako edozeinetan egin eta defendatzeko eskubidea bermatuko da.

7. Nola ebaluatuko da GALa?

Kalifikazioa hiru irizpideren arabera egingo da: ikaslearen lan prozesu osoa, GALaren idatzizko aurkezpena eta ahozko defentsa. Halaber, kontuan hartuko da ikasleak egindako lanaren kalitatea (gaiaren sakontasuna, gizarte eta hezkuntza esparruan duen adierazgarritasuna, originaltasuna, etab.) eta epaimahaikideek egindako galderei zentzuz eta galderari egokitzuz erantzun duen.

Haur eta Lehen Hezkuntzako Graduen kasuan, GALaren kalifikazio osoaren %40 zuzendariak emango du eta ahozko defentsarako izendatutako epaimahaikideen kalifikazioak beste %60a. Gizarte Hezkuntzako Graduan, ordea, zuzendariaren ebaluazioak kalifikazio osoaren %50 balioko du eta beste %50 ahozko defentsari dagokion epaimahaikideenak.

Kalifikazioa 0tik 10era bitartekoa izango da, hamartar bakarrarekin, eta horri dagokion kalifikazio kuantitatiboa ere adieraziko da:

Ez aurkeztua (EA)

0 - 4,9: Gutxiegi (G)

5,0 - 6,9: Nahikoa (N)

7,0 - 8,9: Oso ongi(OO)

9,0 - 10: Bikain (B)

Ohorezko matrikula aipamena egin ahal izango zaie 9,0 kalifikazioa edo altuagoa lortu duten ikasleei. Aipamen hori gehienez ere ikasturte bakoitzean irakasgai honetan matrikulatutako ikasleen ehuneko bosti eman ahal izango zaie. Epaimahaikideek hala proposatuz gero, Batzarraren Batzorde Delegatuak emango du matrikula (GALaren Arautegia, 7.3. art.).

GALen azken kalifikazioen berrikuspenak eta erreklamazioak Unibertsitateko Ebaluazio Arautegiari jarraiki egingo dira. Ebaluazioaren lehenengo berrikuspena epaimahaiak berak egingo du eta, ondoren, ikastegiko Erreklamazio Batzordeak emango du ebazpena; ebazpen horren kontra gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio unibertsitateko errektoreari.

Oro har, ebaluazioa honako irizpide hauen arabera egingo da (Ikusi, 4. eta 5 eranskinetako ebaluaziorako irizpideak).

- Graduan landutako gaitasunak jasotzea.
- Aurkezpen eta egitura txukuna eta koherentea.
- Edukien adierazgarritasuna eta egokitasuna.
- Kode zientifiko, etiko eta deontologikoak errespetatzea.
- Originaltasuna eta izaera berritzailea.
- Gogoeta egiteko eta arrazoitzeko gaitasuna.
- Hizkuntz akademikoaren erabilera eta idatzizko zein ahozko aurkezpenaren kalitatea.
- Bibliografia bereziaren erabilera.

8. Arau etikoa eta jabetza intelektual

GALa Jabetza Intelektualari buruzko legeak babestutako lana da. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titularra lana egin duen ikaslea izango da. Hala ere, lana gordailuan jartzeko edota Unibertsitateko Liburutegian kontsultatu ahal izateko baimena ematea gomendatzen da (ADDI artxibo digitalera lana igotzen denean).

Besteren pentsamendua behar bezala aipatzeak norberaren pentsamendutik bereizten laguntzen du eta egindako irakurketen kalitatearen adierazgarri da eta pentsamenduaren sistematizazio ere. Era berean, ikasleak egindako analisi prozesuen eta sintesiaren kalitatea adierazten du.

9. Zer baldintza administratibo bete behar dira?

GALA EGITEKO GAIEN ESLEIPENA

Bi eratarata hauta daiteke GAL egiteko gaia.

1- Ikasle bakoitzak GALA proposamen bat aurkeztea,

GALA egin aurreko ikasturtearen bigarren seihilekoan ikasleek beren gai proposamena egin dezakete, ikasturte bakoitzean ezarritako ereduaren

araberako epearen barruan eta prozedurarekin bat. Proposamena GAUR bidez egingo da (ikus Jarraibidea eta Egutegia).

Eskolako Batzordeak, edo ordezkatzeko duen Batzordeak, proposamenak baloratuko ditu eta araudiarekin bat ez datozenak baztertuko ditu. Halaber, onartutako proposamenak dagozkien departamentuetara bidaliko ditu, eta horiek izendatuko dute GALA bakoitza zuzenduko duen zuzendaria.

Eskolako Batzordeak, edo ordezkatzeko duen Batzordeak, eskatzaileari jakinaraziko dio zer departamentu eta zer zuzendari esleitu zaizkion bere proposamenari. Proposamena ez bada onartzen, erabakiaren arrazoia adieraziko da.

Onartutako proposamenen esleipena lotuta dago GAUR bitartez behin betiko esleipena egiteko uneko baldintzak betetzearekin (ikus Bilboko Irakasle Eskolako GAL araudiaren 4.10. artikulua).

2- Eskolak proposatutako gai bat aukeratzea

Sail bakoitzak zuzenduko duen ikasleek proposatutako GAL kopurua ezagutu ondoren, GAUR bidez jendaurrean jarriko dute eskaintza osatuko duten gaien zerrenda. Horien artean aukeratuko dute gaia onartu ez dieten ikasleek eta proposamenik egin ez dutenek.

Matrikula formaltzen den unean ikasleak departamentuek aurkeztutako eskaintzaren gai bat aukeratuko du. Eskaintza hori web orrian argitaratuko da matrikulazio epealdia hasi baino lehen, denbora tarte nahikoarekin.

Beraz, hautaketa egiteko ezarritako ordena matrikula egiteko ezartzen den berbera da (ikus 2013/14ko graduako edo lehenengo eta bigarren zikloko ikasketen gestiorako arautegiko 27. art.).

GALA guztien behin betiko esleipena GAUR bidez egingo da uztailean, GALA egin aurreko urteari dagozkion aktak itxi ondoren. Une horretan, GALA esleitu ahal izateko ikasleak gutxienez gaituta izan behar ditu Graduako 168 kreditu. Gainera, ikasleak matrikulatuta egon beharko du ikasketa plana amaitzeko eskatzen diren gai guztietan, GALAn izan ezik.

Gomendatzen da matrikula egin orduko GALA gaien eskaintza aztertuta eta lehentasun ordena ezarrita izatea.

GALA EGITEA

GALA burutuko den ikasturtearen hasieran, ikasle bakoitzak lehenengo harremana egingo du bere zuzendariarekin. Horrek tutoretzen egutegia edukiko du diseinatuta, eta zuzenduko duen ikaslea lau saiotara deituko du gutxienez.

Horrekin batera, ikasleak parte hartuko du nahitaezko asistentzia eskatzen duten prestakuntza jardueretan, urri-abendu bitartean antolatuko direnak. Ondoko gaietara buruzkoak izango dira:

- Iturri bibliografikoak eta informazio bilaketa bereziak.
- GALAren orientazio metodologikoak.
- Memoria idazteko eta ahozko defentsa prestatzeko oinarriak.

GALAREN MATRIKULA

Prozesuak ikasleak hiru urrats ematea eskatzen du, ezinbestekoak defentsara deitua izateko: 1) matrikula eta kredituak ordaintzea, 2) lana entregatzea eta 3) defentsaren eskaera egitea.

Graduaren Amaierako Lanari dagozkion 12 kredituetako matrikula GAUR bidez egin daiteke, edozein unetan, ikasketa plana amaitzeko eskatzen diren gai guztiak, GALA izan ezik, gainditu ondoren. Dena den, ikasturte bakoitzean hiru urrats horiek egiteko data mugatua ezarriko da, eta errespetatu egin behar da (Ikus Egutegia web gunean).

GALA entregatuko da xede horrekin ezarritako epeen barruan, lanaren ale bat pdf formatuan ADDI plataforman txertatuz. Dena den, beste bide ofizial batzuetatik entregatzea ere eska daiteke.

Dagozkion tasak ordaindu ondoren eta GALA ADDI plataforman jarri ondoren GAUR bitartez eskatuko da defentsa egitea, GAL defendatu nahi den unean adieraziz (otsaila, uztaila, iraila). GALA defendatuko den hizkuntza ere aukeratuko da, eta bat etorriko da matrikulatutako kredituen hizkuntzarekin.

Lanaren zuzendariak GAUR bidez automatikoki jasoko du mezu bat zuzendu duen GALAren defentsa egitea eskatu dela jakinaraziteko. Bertan, GAUR sisteman bere txostena izenpetuta txertatzea eskatuko zaio, lanaren kalifikazioa jarrita.

GALEN DEFENTSA

GAUR bitartez GALAren Defentsara deituko dira ikasleak, epaimahaiaren osaketaren berri emango zaie, baita esleitutako egun eta orduaren berri ere.

Epaimahaiaren osaketa, defentsa eta ondorengo ebaluazioa eta kalifikazioa GALen araudiak ezarritakoaren arabera egingo da (ikus 5., 6. eta 7. art.).

Eskolak ezarriko ditu eskola egutegiaren barruan, GALAren defentsarako urteko uneak. Ikasleak urtean bi deialditara aurkez daitezke gehienez ere (ikus GALen araudiaren 3. art.).

GALA lehenengo deialdian gainditzen ez duen ikasleak bigarren deialdi batera joan beharko du, eta lana berriro ADDI plataforman jarri GALEko epaimahaiak proposatutako zuzenketak eginda, defentsarako ezarritako data baino 6 egun lehenago gutxienez.

Ohar garrantzitsua: Informazioa eta prozeduran egiten diren oharrek eta deialdiak ikaslearen posta korporatiboaren bidez (ikasle.ehu.es), GAUR-eko oharren bidez eta WEB orriaren bidez egingo dira. Garrantzitsua da hiru komunikazio bide hauek sarritan begiratzea.



1. ERANSKINA

..... **HEZKUNTZAKO GRADUA**
20...- 20...ikasturtea

LANAREN IZENBURUA

Egilea:

Zuzendaria:

Data eta sinadura: Leioan, 20...(e)koaren ...(e)(a)n

ZUZENDARIAK O.E.

EGILEAK O.E.



2. ERANSKINA

GRADU AMAIERAKO LANAREN ZUZENDARIAREN TXOSTENA

Lanaren izenburua:	
Ikaslea:	
Zuzendaria:	
Data:	Gradua: <input type="radio"/> Gizarte Hezk. <input type="radio"/> Haur Hezk. <input type="radio"/> Lehen Hezk.

Honako hauek dira GALaren alderdirik nabarmenenak:

Hobetu beharreko alderdien artean aipatzekoak dira:

Kalifikazioa (10etik):

Sin _____

Leioan, 20...(e)koaren ...(e)(a)n



3. ERANSKINA

..... **HEZKUNTZAKO GRADU AMAIERAKO LANAREN
EBALUAZIORAKO AKTA EREDUA**

Ikaslea: _____

Gradu Amaierako Lanaren izenburua:

EBALUAZIO BATZORDEA:

Epaimahaiburua: _____

Epaimahaikidea: _____

Idazkaria: _____

GRADU AMAIERAKO LANAREN BALORAZIOA

Lanaren idatzizko aurkezpena (gaiaren sakontasuna, zailtasuna eta analisiaren orijinaltasuna, gaiaren adierazgarritasuna, edukien antolaketa, idazkera...):

Ahozko azalpena eta defentsa (aurkezpena eta epaimahaiaren galderei emandako erantzunen egokitasuna):

AZKEN NOTA (0-10):	
---------------------------	--

Leioan, 20__ (e)ko _____ aren ____ (e)(a)n

Epaimahaiburua
Sin.:

Epaimahaikidea
Sin.:

Idazkaria
Sin.:

ZUZENDARIAK EBALUATZEKO ERIZPIDEAK

4. ERANSKINA

	Gai da	Ikasitakoaren emaitzak (I.E.)	A	B	C	D
	aukeratutako gairako dokumentazioaren lehenengo bilaketa egiteko.	Dokumentazio iturri esanguratsuetatik abiatuz garatu du bilaketa. Gaiaren funtsezko deskribatzaileak identifikatu ditu. Datu baserik garrantzitsuenetan bilatu du. Gaiaren esparru teorikoa sortzeko dokumentuen erreferentzia egokiak aukeratu ditu.				
HASIERAKO FASEA	lan bideratuko duten galderak edota helburuak zehazteko.	Galdera eta helburu sorta funtzionala zehaztu du, lana egoki egituratu eta bideratzeko asmoz. Galdera eta helburu sorta zehaztu du. Galdera edo helburu bat baino gehiago baldin badago, haien arteko lotura adierazi du.				
	GALaren funtsezko elementuak identifikatzeko.	Lanaren egitura zehaztasunez deskribatu du eta elementuak laburtu ditu. Gaia eta aplikazio testuingurua lotu ditu. Aplikazio testuingurua mugatu du. Lanaren egitura zehaztu du (helburuak, baliabideak, metodologia, informazioaren analisia).				
DISEINUA eta PLANGINTZA	lanaren funtsezko elementuak antolatzeke.	Lanaren antolaketara sistema argi eta garbi adierazi du. Lanaren egitura orokorra arrazoitu du. Lana burutzeko prozedura diseinatu du. Erabili beharreko baliabideak zehaztu ditu, helburuak kontuan hartuta.				
	GALaren gauzatzeko faseen iraupena zehazteko.	Denbora behar bezala kudeatu du, benetako aukerak eta eskakizun ofizialak kontuan hartuz. Lanaren faseak antolatu ditu. Kronograma bat egin du lanaren funtsezko faseak adieraziz. Egutegia zuzendariarekin adostu du, ikastegiak zehaztutako datak kontuan hartuz.				
	garapen txostena aurkeztu eta zuzendari eta ikaskideen aurrean defendatzeko.	Lanaren garrantzia koherentziaz arrazoitu du eta prozesua irmoki defendatu du. Gaiaren garrantzia edo adierazgarritasuna arrazoitu du. Lanaren funtsezko elementuak aurkeztu ditu. Lanaren garapen prozesuaren barne koherentzia adierazi du. Faseen eta kronogramaren artean lotura ezarri du. Metodologia eta erabiliko dituen baliabideak aukeratu ditu.				
	GALaren esparru teorikoa sortzeko funtsezko iturriak erabiltzeko.	Ongi aukeratu du gaiari buruzko literatura eta koherentziaz erlazionatu du GALean ezarritako helburuekin. Gaiari buruzko literatura espezifikoa aukeratu du. Aztertutako literaturaren informazio garrantzitsua aukeratu du. Ongi erlazionatu ditu aukeratutako informazioa eta GALaren helburuak.				
GARAPENA	ezagutza erabiliz esparru teorikoa sortzeko.	Formatu zientifikoa erabilita eta bildutako informazioa oinarri hartuta, esparru teorikoa sortu du eta landutako planteamendu horietatik abiatuta bideratu du GALA. Bildutako informaziorik aipagarriena jaso du lanean. Aurrez bildutako informazioa oinarri hartuta sortu du esparru teorikoa. Lana esparru teorikoaren testuinguruan kokatu du.				
	lortutako datuak biltzeko, aztertzeko eta interpretatzeko.	Bildutako informazioa sistematikoki eta zehaztasunez aztertu eta interpretatu du eta planteamendu teoriko edo enpirikoetan oinarritutako ondorioak atera ditu. Dagokion arloko lana burutu du. Emaitzak aztertu ditu. Aztertutako emaitzetan oinarrituz ondorioak atera ditu. Emaitzetatik abiatuz, ikasketen jarraipenerako prospektiba bat zehaztu du.				
	idatziz eta ahoz ideiak argi eta garbi adierazteko, arlo zientifikoaren hizkera erabiliz.	Ongi amaitu du GALaren azken txostenaren idazketa, eta arlo zientifikoaren hizkuntza espezializatua egoki erabili du. GALaren idazketa amaitu du, eta prosa akademikoaren formazko eta egiturazko oinarritzko irizpideak errespetatu ditu. Lana ahoz aurkeztu du ikaskideen aurrean, eta ongi egituratu du. Aurkeztutako lana defendatu eta eztabaidatu du ikaskideen aurrean. Adimen etikoa eta sistematizazioarako gaitasuna duela adierazi du, baita analisi kritikoa egiteko eta sintesirako gaitasuna ere.				
	lortutako ezagutzaren eta prozesu osoaren kontzientzia hartzeko.	Lortutako ezagutzaren eta jarraitutako prozesuaren ondorioz metakognizioa sortu du. Bere prozesuari buruzko ebaluazio txosten guztiak (bereak/besterenak) sistematikoki aztertu ditu. Bere lanaren inguruko hausnarketa kritiko propioak eta jasotako balorazioak bildu ditu. Autoinforme bat egin du GALa egiterakoan antzemandako indargune eta ahulguneekin.				
BALORAZIOA, HOBEEKUNTZA eta PROSPEKTIBA	ezagutza berriak sortu eta landutakoak jasotzeko.	Esparru teorikoan landutako jakintza desberdinak bildu ditu eta berriak ere jaso ditu (lanaren ekarpen kritikoak, hausnarketaren eta norberaren pentsamenduaren ondorio gisa). Kanpoko ebaluazio prozesuetatik eta autoinformetikat/autoinformeetatik sortutako proposamenak aztertu ditu. Lana aldatuz joan da, besteek hobetzeko egindako proposamenen eta autoinformeen ondorioz. Lanari jarraipena eman ahal izateko oinarriak ezarri ditu.				
	autoebaluazioa eta prospektibak egiteko.	Bere GALa autoebaluateko eta etorkizunerako bideak irekitzeko gai izan da. Oroitidazkian jaso ditu lanean lortu diren eta oraindik lortzeke dauden helburuak. Etorkizunean lan horrekin segitzeko ezarri beharko lirakekeen oinarritzko ardatzak ezarri ditu. Autoebaluazio orokorrerako txosten bat egin du, lanaren kalifikazioa proposatzeko eta arrazoituz.				

Ikasitakoaren emaitzen mailak: **A** = oso ongi; **B** = Ongi; **C** = Nahikoa; **D** = Gutxi

Egokitua honako honetatik: AQU. 2009. *Guía para la evaluación de competencias en el trabajo de fin de grado de las Ciencias Sociales y Jurídicas*, (35-75 orriak). http://www.aqu.cat/doc/doc_30156918_1.pdf

GALAREN EPAIMAHAIARENTZAKO EBALUAZIO IRIZPIDEAK

5. ERANSKINA

	Haur eta Lehen Hezkuntza Graduak	Gizarte Hezitzaile Gradua	ADIERAZLEA	ADIERAZLEAREN AZALPENA	A	B	C	D
Ahozko defentsa	% 75	% 80	Emaitzen eta ondorioen aurkezpena.	Justifikazioa, helburuak, metodologia eta lortutako emaitzak modu ordenatuan azaldu eta interpretatzen ditu , daukan denbora atal bakoitzari eman zaion garrantziaren arabera erabiliz eta modu egokian justifikatuz. GALen egindako ekarpenak modu logiko, sintetiko eta ordenatuan argudiatzen ditu . Landu gabeko elementuak eta egindako lanaren balizko hedapenak zehazten ditu.				
			Hizkuntzaren erabilpena	Lanaren izaera akademikora egokitutako estiloa erabiltzen du . Edukiak azaltzeko modua argia eta zehatza da, eta erabilitako hiztegia egokia.				
			Aurkezpenaren kalitatea	Aurkezpenean elementu egokiak eta sortzaileak erabiltzen ditu , entzulearen arreta lortzen dutenak eta ulertzen laguntzen diotenak.				
			Ahozko eta ez-ahozko komunikazio trebetasunak	Mezua indartzen du eta entzuleen arreta gordetzea lortzen du, modu oso eraginkorrean erabiliz ahozko eta keinu bidezko komunikazio teknikak: entzuleei begiratzen die, bolumen egokia erabiltzen du, tonua modulatu du, ahozko mezua keinuen bitartez indartzen du, diskurtsoan ez du hitz betegarririk erabiltzen, eta abar.				
			Epaimahaiko kideen galderei erantzuna.	Harkorra da eta interesa azaltzen du jasotako iritziengatik, arretaz entzuten ditu. Egiten zaizkion galderei logikaz, trebetasunez eta zentzuz erantzuten die.				
Txostena	% 25	% 20	Justifikazioa	Bere lanak gizartearen eta hezkuntzaren errealitateari erantzuten diola justifikatzen du . Originaltasuna eta gaiaren gaurkotasuna				
			Argudiatzea	Ezagupen eta ebidentzia zientifikoz argudiatzen du , bere diskurtsoaren logika garbi erakutsiz.				
			Intentsitatea / Sakontasuna	Lanean intentsitatea/sakontasuna erakusten ditu , eta hori frogatu daiteke berari lotutako lanengatik, erabilitako bitartekoengatik, aztertutako bibliografiagatik, eta abar.				
			Idatzizko adierazpena (zuzentasuna, jariokortasuna, lexikoa...)	Idatzizko adierazpen arauen ulermen egokia erakusten du (Gramatika, ortografia eta abar). Hizkera formal da eta testuinguru akademikora eta gaira egokitua. Idazkera aberatsa da, baina zehatza.				
			Erreferentziak eta zitak	Informazio iturriak modu egokian erabiltzen ditu eta erreferentziak ondo aipatuta daude.				

A: Oso egokia (**Bikaina: 9-10**); **B:** Egokia (**Oso ongi: 7-8**); **C:** Oinarrikoa: (**Nahikoa: 5-6**); **D:** Desegokia (**Gutxi: 0-4**)

Epaimahaiaren notak (azalpenarena nahiz ahozko defentsarena, eta idatzizko lanaren balorazioa) GALen azken notaren % 60 suposatzen du. Gainerako % 40 Zuzendariari dagokio. Gizarte Hezitzaile Graduan, berriz, bakoitzari %50a dagokio.

GRADU AMAIERAKO LAN MOTEN ADIBIDEAK

6. ERANSKINA

<p>Lan enpirikoak: posible den heinean, lan hauek metodo zientifikoaren eredia jarraituko dute; alegia ikerketara bideratutako eta aurrez antolatutako lanetan oinarrituz egingo dira, euren artean independenteak diren fase multzo baten bidez.</p>	<p>Lan teorikoak: ikasleen intereseko eta gaur egungo gai edo arazoei buruzko lan deskriptiboak eta berrikusketa edo ikerketa bibliografikoak. Lan mota hauen muina izango da gizarte eta hezkuntza testuinguruaren edozein arlotako aztergai egoki eta esanguratsu baten gaineko bibliografia aztertzea, baita kontzeptuak, datuak eta ereduak aztergaiarekin lotzea, logika, sormena eta antolaketa baliatuz.</p>	<p>Lan profesional praktikoak: Lan hauen helburua gizarte eta hezkuntza arloko kasu praktiko profesional baten deskribapena txosten batean jasotzea izango da.</p>
<p>Lan mota honen egitura hau izango da:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Aztertuko den arazoaren edo gaiaren definizioa. 2. Lortu beharreko helburuen zehaztapena (orokorrak eta zehatzak). 3. Lanaren hipotesiaren adierazpena. 4. Datuak biltzeko metodologia zehaztu (tresnak eta iturriak). 5. Ikergaiaren ereduaren hautaketa. 6. Datuak bildu. 7. Datuen analisia eta interpretazioa. 8. Emaizak. 9. Emaizten interpretazioa eta aplikazioa: gizarte eta hezkuntza testuinguruan esku hartzeko konpromisoak. 10. Ondorioak. 	<p>Lan hau ikerlan enpirikoa ez izan arren metodo zientifikoaren hipotesi eta ondorio prozesuaren antzeko logika izango du, baina datu enpirikoak lortu eta aztertzeari dagozkion alderdiak alde batera utziz. Lan honen emaitza txosten zorrotz bat izan beharko litzateke, aztergaiaren egoera azaltzeko edota kontzeptu eta ereduak biltzen dituen eta abiapuntu edo bide izan litekeena beste ikerlan enpiriko baterako.</p> <p>Lan mota honen egitura hau izango da:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Aztertuko den arazoaren edo gaiaren definizioa. 2. Lortu beharreko helburuen zehaztapena (orokorrak eta zehatzak). 3. Bibliografia bilatzeko prozeduren deskribapena. 4. Bibliografia iturrien deskribapena, bai elektronikokoak bai inprimatuak. 5. Datu bibliografikoen analisia: lanaren atalik garrantzitsuena izango da, eta bertan azalduko dira modu egituratua bai ikergaiaren kontzeptu eta ideiarik aipagarrienak bai horien analisia, osaera edota interpretazioa. Datu horiek behar beste azpialetan egituratuko dira, kontzeptuen azalpen koherentea eta antolatua emateko eta horrela 2. atalean zehaztutako helburuak lortzeko. 6. Esku hartzeko proposamenak edo beste ikerlan enpirikoen proposamenak: ikasleak egindako bibliografiaren analisia oinarri hartuta, analisi edo esku-hartze enpirikoren bat proposatu beharko du, 5. atalean aztertu eta garatutako bibliografiaren interpretazioaren ondorio gisa. 7. Ondorioak. 	<p>Lan praktikoari buruzko alderdi hauek deskribatu beharko dira zehatz-mehatz:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Praktikaren gaia, helburua eta izena. 2. Praktika gizarte eta hezkuntza errealitatearen zein eremuri dagokion adierazi eta bibliografiaren eta dokumentazioa aztertu. 3. Praktika egiten den erakundearen, enpresaren edo instituzioaren deskribapena. 4. Praktikaren deskribapena eta analisi zehatza: GALaren xedetzat hartuko den praktika behar bezala deskribatzeko beharrezkoak diren azpialat guztiak barne. 5. Ondorioak. 6. Gizarte eta hezkuntza errealitatean esku hartzeko konpromisoak.

Oharra.- “Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua. Gradu Amaierako Lana egin eta defendatzeari buruzko Arautegiaren Garapena” txostenean proposatutako GAL ereduaren moldaketa bat da hau (Ikus: <http://www.ehu.es>, 2012-5-22, 5-6 orr.).